

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

103/2019 Foru Agindua, apirilaren 24koa, zeinaren bidez, hasierako onespena ematen baitzaio Erriberagoitiko udalerriko Tuyo herrian, 2 poligonoko 879 lurzatian, Tuyoko Ureztatzaileen Elkartearen, zundaketa egin eta eremu fotovoltaikoa jartzeko proiektuari interes publikoa aitortzen dion espedienteari

Tuyoko Ureztatzaileen Elkar-teak Erriberagoitiko Udalar-i obra baimena eskatu dio Zadorra ibaitik hartu ordez lurrazpitik hartu eta egungo erregulazio putzura eramateko zundaketa egiteko, eta baita hori eguzki energia bidezko punpaketa sistema baten bidez egin ahal izateko eremu fotovoltaiko bat jartzeko ere, Tuyo herriko 2 poligonoko 879 lurzatian.

Erriberagoitiko Udalak espediente-a bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago onetsitako proiektu tekniko-a, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita lurzortia lurzoru urbanizaezinean dagoela, Z5 zonan (trantsizioko landa paisaia), udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente-a ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri-z Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko-a den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratu-tako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehen-a. Hasierako onespena ematea Erriberagoitiko udalerriko Tuyo herrian, 2 poligonoko 879 lurzatian, Tuyoko Ureztatzaileen Elkar-tean, zundaketa egin eta eremu fotovoltaikoa jartzeko proiektuari interes publikoa aitortzen dion espedienteari. Adierazpen hori Tuyoko Ureztatzaileen Elkar-teak sustatu eta Erriberagoitiko Udalak izapidetu du.

Bigarrena. Espediente-a jendaurrean jartzea, hoguei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espediente-a.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO